



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEA elkartu da, bigarren deialdian, Vitoria-Gasteizen, 2022ko maiatzaren 4ko 16:00etan, Administrazioak utzitako lokalean eta kide hauek bertaratu dira:

Juan Luis Ibarra Robles jauna, batzordeburua  
José Antonio Nieto Antón jauna  
Estefanía Ocáriz Passevant andrea  
Miren Ortubay Fuentes andrea  
Francisco Javier Hernáez Manrique jauna, idazkaria

Ezin dela etorri adierazi du honek:  
Ricardo Egiguren Mendieta

**Lehenengo puntua.**- 2022ko martxoaren 30eko akta onartu da.

**Bigarren puntua.**- Honi buruzko arauak era irizpideak onartu dira: “EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEKO KIDEENTZAKO KALTEORDAINAK ETA KONPENTSAZIOAK”. Horri buruzko testua akta honekin batera doa.

**Hirugarren puntua.**- Aurreko erabakian onartutako arauak Sailera helaraztea erabaki da.

**Laugarren puntua.**- Estefanía Ocáriz Passevant andreak ekitaldi instituzional batera joateagatik aurkeztutako gastuak Sailera helaraztea erabaki da, Sailak ordain ditzan, onartutako irizpideen arabera.

**Bosgarren puntua.**- Ertzaintzako zuzendariak 2022ko apirilaren 6an helarazitako jakinarazpenean azaldu zuen ikerketa bertan behera geratu zela harik eta prozeduraren behin betiko epaia ematen den arte. Horri dagokionez, eskatu nahi diogu zehazteko ea horrek esan nahi duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 138.5 artikuluan aurreikusten dituen ikerketa-jardueretatik bat ere ez dela egin, [REDACTED] Ikerlana ireki zenetik hori bertan behera uzteko erabakia hartu arte. Ikerketa-jarduerak egin badira, horiek bidaltzeko eskatzen da. Txostenaren xede diren egintzekin lotutako atestatu polizialaren kopia sinplea Batzordera bidaltzeko ere eskatzen da.

Eta lantzeko gai gehiagorik ez dagoenez, bilera amaitu da egun horretako 19:00etan.